

Arrasateko Udal Biblioteka

MEMORIA

2025



AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	3
HISTORIA ETA EBOLUZIOA.....	4
BAZKIDEAK.....	5
BILDUMA.....	6
MAILEGU ZERBITZUA.....	8
ELIBURUTEGIA PLATAFORMA DIGITALA.....	14
ERABILTZAILEEN ESKAERAK.....	16
LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGUA.....	17
TOKIKO BILDUMA.....	18
INTERNET ETA ORDENAGAILUEN ZERBITZUA.....	23
WEB ORRIA ETA SARE SOZIALAK.....	24
IRAKURKETA SUSTATZEKO JARDUERAK.....	25
HAURRAK ETA GAZTEAK.....	25
HELDUAK.....	31
OROKORRAK.....	36
JARDUERAK ZENBAKITAN.....	50
ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.....	51
LANTALDEA.....	59
INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK.....	61
FINANTZAKETA.....	63
LIBURUTEGI PUBLIKOEN ESTANDARREN BETETZE MAILA.....	65
ONDORIOAK ETA LAN LERROAK.....	66
BIBLIOGRAFIA.....	67

AURKEZPENA

Dagoeneko bost urte dira urteko memoria egiten hasi ginenetik eta aurten ere, txosten honen bitartez, Arrasateko Bibliotekaren ateak zabaltzen dizkizuegu.

Memoria honetan jaso ditugun datuak landu dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2012an argitaratu zuen eta indarrean dagoen Euskadiko liburutegi publikoen estandarrak dokumentua kontuan hartuta. Estandar hauek udalerri bakoitzean lortu beharreko parametroak definitzen dituzte, bertan dauden liburutegi eta zerbitzugune guztiak zenbatuta.

Datuak eta zifrak alde batera utzita, dokumentu honek informazioa eskuratzeko eta irakurketa sustatzeko dugun konpromisoa islatzen du. Gure bildumaren kudeaketaren eta dinamizazio kulturalaren bitartez, liburutegia gure herriaren garapen intelektual eta sozialaren funtsezko zutabe gisa finkatzeko lan egiten baitugu.

Dokumentu honek zerbitzu publikoari eskainitako urtebeteko dedikazioa laburbiltzen du: gure funts bibliografikoa zehatz-mehatz zaintzetik hasi eta gure komunitatea inspiratzen eta gogobetetzen duten jarduerak antolatzeraino. Azken urte honetan gure lana definitu duten mugarriak, datuak eta proiektuak ezagutzera gonbidatzen zaituztegu, betiere ezagutza partekatuaren etorkizunari begira.

Bibliotekako lantaldea

Arrasate, 2026ko martxoa

HISTORIA ETA EBOLUZIOA

Arrasateko Udal Biblioteka 1966an sortu zen, Garibai etxean. 1987an Monterron Jauregira aldatu zen eta bertan bi hamarkadetan zehar eskaini zituen bere zerbitzuak. Denbora horretan izandako espazio eta irisgarritasun arazoak konpondu egin ziren San Frantzisko komentua zaharberritzean, egungo udal kultur etxea (Kulturate) eta Udal Bibliotekaren egoitza izan zedin. Birgaitze horretan, liburutegirako espazioak horretarako diseinatu ziren, eta 2007an egungo instalazio modernoak inauguratu ziren, 1.600 m2 inguruko azalerarekin.

Liburutegiak bigarren zerbitzugune bat du 1991tik, Toki Argi eraikinean Santa Marinako auzo biblioteka dugu, bereziki haur eta gazteei zuzenduta, baina azken urteetan helduei begira ere oinarrizko zerbitzu batzuk ematen ari dena.

2004. urtean, bi udal liburutegi hauek Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean (EIPS) sartu ziren, eta, orduztik aurrera, Absysnet hartu zen lan-tresna gisa, elkarlaneko online katalogoan parte hartuz.



Garibai etxea, Monterron Jauregia, Kulturate eta Santa Marina


Bibliotekak sarbide libreko espazio kulturalak direnez, babes lekuak ere badira, adibidez errekurtsio gutxi dituzten pertsonentzat. Horregatik azken urteotan gure lanak zeregin soziala ere badu. Izan ere, urte guzti hauen ondoren berretsi dugu biblioteka liburuak gordetzeko ez ezik, aldaketarako eta bizikidetzarako motorra ere badela.

Halere, egungo gizartea konplexua eta anitza da, eta beharrezkoa da baliabideetan inbertsio erreala egitea. Azken urteetan liburutegiak asko aldatu dira, etengabe aldatzen ari dira, beraz, eredu-aldaketa sakona behar da eman. Liburutegiak egokitze duen gaitasuna da bere indargunerik handiena: aldaketa zerbitzu-aukera bihurtzen duen etengabeko bilakaera.


BAZKIDEAK

Goranzko joerarekin jarraitzen dugu bazkide kopuruari dagokionez. Egun, 14.501 herritar dira bibliotekako bazkide, beraz, esan genezake **Arrasateko biztanleriaren % 65a bibliotekako bazkide** dela, iaz baino lau puntu gehiago.


Bazkideak Kulturaten




Bazkideak Santa Marinan



Bazkide berriak



Bazkideak irakurle motaka




BILDUMA

Biztanleko 2 dokumentu egokitzen zaizkio Arrasateri sarbide libreko funtsetan Euskadiko liburutegi publikoen 2012ko estandarren arabera. Arrasateko erroldak goraka jarraitzen du eta 2021ean galdutako biztanleak berreskuratu dira egun 22.450 biztanle izateraino. Ondorioz, sarrera libreko bilduma 44.900 dokumentu ingururekin osatu beharko litzateke.

Helduen bibliotekan, haur eta gazte bibliotekan eta Santa Marinako auzo bibliotekan dauden sarbide libreko dokumentuen baturak 57.114 ematen du. Beraz, ondorioztatu dezakegu betetzen dugula bildumaren tamainari dagokion parametroa; baina adierazle honek ez digu azaltzen bilduma gaurkotua dagoen ala ez. Adierazle hau, beraz, erlazionatuta dago urtero erosi beharreko dokumentu kopuruarekin. Bilduma gaurkotua mantentzeko, urtero bildumaren % 10 berritu behar da eta, era berean, bildumaren % 10 xahutu. Beraz, urtero 4.388 dokumentu eskuratu beharko genituzke eta beste hainbeste xahutu. 2025ean 2.781 eskuratu dira, hau da, bilduma % 6,33a berritu dugu. Gure bibliotekako zerbitzu gutunean ere jasota dagoen konpromisoa da bildumaren % 10 berritzea.


Bildumak etengabeko aldaketak izaten ditu, komunitatearen interesak aldatzen direlako, gaiak zaharkitu eta liburuak hondatzen direlako. Xahuketak ahalbidetzen digu erabiltzaileentzat garrantzitsua, erakargarria eta erabilgarria den bilduma bat izatea. 2025ean 2.419 dokumenturi baja eman diegu eta honekin, % 5,51 xahutu dugu.

Bilduma Kulturaten: 70.383 dokumentu




■ Monografiak:	56.153
■ Aldizkariak:	1.982
■ Bideoak:	6.586
■ Musika:	4.342
■ Beste batzuk:	300

Bilduma Santa Marinaran: 7.515 dokumentu




■ Monografia	k:	6.341
■ Aldizkariak:		319
■ Bideoak:		691
■ Musika:		153


2.781 dokumentu berri 2025ean



2.781 dokumentu berri 2025ean jatorriaren arabera




Bilduma kokagunearen arabera



Hurrei zuzendutako dokumentuak bildumaren %30 izatea komeni da eta gazte eta helduentzako dokumentuak %70. Adierazle hau ondo betetzen dugu Arrasaten.

Bilduma hizkuntzaren arabera



Euskaraz argitaratzen denari arreta berezia jartzen diogu. Eusko Jaurlaritzak Kulturaren Euskal Behatokiak euskarazko argitalpenei buruzko 2024ko XVIII txostenaren arabera, Euskadiko testu-liburuak alde batera utzita, haur eta gazte literatura da euskarazko literatur argitalpenen industriaren zati garrantzitsuenaren (% 30,6), helduentzako fikzioa gero (% 14,1) eta, azkenik, fikziozkoak ez diren liburuak (% 17,2). Liburu bildumak ditugu beste hizkuntzetan ere haur zein helduentzat: ingelesez, frantsesez, arabieraz, urduz, italieraz edo portugesez, besteak beste.

MAILEGU ZERBITZUA

Liburuen mailegua da liburutegiek duten oinarrizko zerbitzua. 2025an liburuen maileguan jaitsiera txiki bat egon da, iaz % 2,6 gutxiago mailegatu dugu baina gogoratu dezagun 2024an liburuen maileguaren errekor historiko bat izan genuela asko igo baitzen maileguen kopurua, %10a, hain zuzen. Azken bost urteetako bilakaerari begira, 28.131 mailegutik 33.459 mailegura iritsi gara, goranzko joera bat dago dudarik gabe.

Oro har, liburu fisikoen mailegua da nagusi ia erabat, eta multimedia-formatuek (musika eta bideoa), berriz, garrantzia galtzen dute. Bideoak izugarri jaitsi dira, 2021ean 6.417 izatetik 2025ean 3.833 izatera (ia % 40ko murrizketa) eta musika da eskari gutxien duen kategoria, 918 mailegu izatetik 590 izatera igaro da 2025ean.


Hala ere, aldizkarien maileguan ezustekoa izan dugu, bideoak edo musika ez bezala, aldizkariak egonkorragoak izan dira eta datuak gora egin du berriro, 937 mailegu izan dira 2025ean, musikaren zifrak ere gaindituta.

Bestalde, herriko ikastetxeei dagokionez, esanguratsua da mailegu zerbitzuak hartzen duen garrantzia. 2025. urtean, esaterako, 1.864 dokumentu mailegatu dizkiegu, aurreko urtean baino %13 gehiago. Kontuan hartu behar da, gainera, zerbitzu honek aukeraketa eta aholkularitza lan tekniko bat suposatzen duela.

Aurreko memorietan aipatu dugu harpidetza-plataformen arrakastak markatu duela ikus-entzunezkoen produkzioak izan duen aldaketa, non plataforma digitalak geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren zine eta musika kontsumitzeko ohituretan eta, ondorioz, musika eta zine ekoizleek gero eta produktu gutxiago kaleratzen dute salmentarako. Gure zerbitzuetan ere igarri da adibidez disko fisikoen maileguen beherakada -erabiltzaile gehienek jada ez dute CD erreproduzigailurik etxean eta autoetan- eta ohitura aldaketa honek liburutegi askotan espazio fisikoaren berrasmatzea ekarri du. Arrasaten ere, streamingaren aurrean euskarri fisikoak pisua galdu duenez, helburua litzateke espazioari garrantzi soziala itzultzea.

Beraz, esan dezakegu liburutegia inoiz baino 'irakurleago' bihurtu dela. Egun, liburu da erabiltzaileen artean interes handiena sortzen duen dokumentu mota, aro digitalean, pantailen nagusitasunaren aurrean, papera da irakurle komunitatearen babeslekurik gogokoena. Hainbat urtez lanerako edo ikasketetarako pantailetan irakurri ondoren, erabiltzaile askok esperientzia analogikoa bilatzen dute liburutegian.


Maileguak Kulturaten




Maileguak Santa Marinan



Helduentzako liburuen maileguak hizkuntzaka



Haur eta gazteentzako liburuen maileguak hizkuntzaka



Mailegatuenak

Helduentzako liburuak gazteleraz



Helduentzako liburuak euskaraz



Haurrentzako liburuak



Gazteentzako liburuak



Helduentzako pelikulak





Haurrentzako pelikulak




eLIBURUTEGIA PLATAFORMA DIGITALA

Euskadiko Irakurketa Sare Publikoak *eLiburutegia* plataforman **35.720 liburu**, **6.379 pelikula**, **15.255 aldizkari** eta **1.269 audioliburu** eskaintzen ditu mailegurako.

Arrasateri dagokionez, 308 erabiltzaile desberdinek erabili dute zerbitzua eta 2.469 liburu mailegatu dituzte. Datu hauekin Euskal Autonomi Erkidegoko 10.000 biztanletik gorako udalerrietan **lehen postuetan gaude** 1.000 biztanleko 111 maileguekin.



Maileguak 1.000 biztanleko 10.000 biztanletik gorako udalerrietan 2025



Liburutegia

ELIBURUTEGIA **KATALOGOA** **LAGUNTZA** **ZINEMA** **ALDIZKARIAK**

Titulua edota egilea bilatu

Gomendioak

Estatu Batuak Literaturan / Estados Unidos en la literatura

Herederás la tierra Smiley, Jane

Matadero cinco Vonnegut, Kurt

De ratones y hombres Steinbeck, John

Alguien voló sobre Kesey, Ken

Berriak
Azken astea (5)
Azken hamabost egunak (45)
Azken hilabetea (72)

Sariak
Euskadi Literatura sariak (98)


Gaiak
Abenturazko eleberria (324)
Artea, zinea eta argazkigintza (457)
Beldurrezko eleberria (178)
Bidaia liburu eta gidak (392)
Biografiak (1274)
Eleberri beltza eta intrigazkoa (2629)
Eleberri erotikoa (151)
Eleberri errromantikoa (1359)
Eleberri historikoa (926)
Eleberria (9664)

eLiburutegia plataforma interneten: <http://www.eliburutegia.euskadi.eus>

ERABILTZAILEEN ESKAERAK

Bibliotekan egunero jasotzen ditugu eskaerak, aurrez aurre eta online. Oso azkar erantzuten ditugu, eta gainera, ahalegintzen gara erantzun hori positiboa izan dadin. Dokumentu batzuk erosi egiten ditugu, beste batzuk liburutegien arteko maileguaren bidez lortzen ditugu, badira formatu digitalean eskuratzen ditugunak ere eLiburutegiaren bitartez eta gutxi batzuk ezeztatu egiten dira.

2025ean **1.193 eskaera** jaso ditugu, aurreko urtean baino % 13 gutxiago. Erabiltzaileen eskaerei eman zaien baiezkoko erantzunak guztira % 95 dira eta ezeztapenak soilik % 5. Zerbitzu Gutunean jasotakoaren arabera, eskaeren % 85 eskuratzea da bibliotekaren konpromisoa, eta, bistan denez, egun, helburu hori aise betetzen dugu.




LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGUA

Bibliotekak espazio eta aurrekontu mugatuak ditu, eta beraz, ezinezkoa da erabiltzaileek izan ditzaketen eskari guztiak bertako bildumarekin asetzea. Eskari hauei erantzuteko modu bat Liburutegien Arteko Mailegu zerbitzua da.

Autonomia erkidegoan Jaurilaritzaren Liburutegi Zerbitzuak kudeatzen du liburutegien arteko mailegua, eta gainera, bere gain hartzen du zerbitzuaren gastua. Ondorioz, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen dugun 286 bibliotekok kosturik gabe jaso eta bidaltzen ditugu liburuak eta bestelako materialak liburutegi batetik bestera, erabiltzaileen beharrak asetzeko.

Gure bazkideek liburutegien arteko mailegu zerbitzua bikain baloratzen dute, eta erabilera handia du, geroz eta handiagoa. Bidalitako dokumentuen kopurua **3.691** izan da aurten, iaz baino % 1 gehiago, eta eskatutako dokumentuen kopurua **1.954** izan da, iaz baino % 9,1 gehiago.

Datuetan garbi ikusten denez, Arrasateko bibliotekak bidaltzen duen dokumentuen kopurua eskatzen duena baino askoz handiagoa da, eta horrek esan nahi du kalitatezko bilduma daukagula, anitza eta erabiltzaileen beharrei egokituia.



Bestalde, aipatu beharra dago Kultureta eta Santa Marinako auzo bibliotekaren artean liburutegien arteko mailegu zerbitzua eskaintzen dela eta erabiltzaileek eskatutako dokumentuak egun batetik bestera ekarri eta eramaten ditugula. Bi liburutegien arteko dokumentu mugimendu hau gero eta handiagoa da, esaterako aurten 79 eskaera erantzun dira.

Dokumentu bat ez dugunean erkidegoko sareko liburutegietan aurkitzen, Estatuko sare nagusienetara jotzen dugu: biblioteca publikoen sarera edota biblioteca unibertsitarioen sarera. Kasu honetan, udal liburutegiak bere gain hartzen ditu bidalketaren gastua eta zerbitzuaren kostua ere bai (liburu bakoitzeko 8 euro inguru).

Aurten 21 liburu eskatu ditugu gure saretik kanpo: horietatik 4 unibertsitateetan eta beste 17 estatuko biblioteca publikoen sarean.

Erabiltzaile partikularren eskaerei erantzuna emateaz gain, irakurketa klubak ere hornitzen ditugu. Bibliotekan bertan 5 talde ditugu: euskarazko solasaldien taldea, gaztelerazkoa, ingelesezkoa, euskarazko komiki kluba eta gaztelerazkoa.

Bibliotekatik kanpo, gainera, **8** irakurle talde hauekin lankidetzan gabiltza, beraiek aukeratutako liburu sortak eskuratzen diegularik:

- San Juan de Dios ospitaleko 4 talde: URTMS-Plazaola, Benito Menni, Sagrado Corazón eta San Rafael unitateetakoak.
- Fundación Goyeneche elkarteko 2 talde: Arrasatekoa eta Bergarakoa.
- Arizmendi-Gaztelupe ikastolako 4. DBH mailako dibertsifikazio taldea.
- Emakume Txokoko irakurketa feministen taldea.

Bestalde, herriko ikastetxeentzat ere egiten dugu biblioteken arteko mailegua, eta liburu bete motxila prestatzen dizkiegu gelan irakurketa landu dezaten. Iaz bezala, aurten ere Arrasateko Institutuko DBH1 mailako 5 gela liburuz hornitu ditugu.

Era berean, Erguin Herri Eskolako LH4ko ikasle guztientzat *Korri*, *Kuru*, *korri* liburuaren aleak ekarri ditugu saretik, 2026 hasieran liburua irakurri eta ondoren idazlearen bisita izango dute eta.

TOKIKO BILDUMA

Tokiko Bilduma bibliotekaren altxor bizia da, bildumarik bereziena delako, herriaren oroimena eta nortasuna batzen dituen. Bertan biltzen ditugu herriko egileen lanak edota herriari buruzko informazio anitza. Guztira **2.886** dokumentu daude, material mota desberdinetakoak: liburuak, aldizkariak, cdak eta bideoak. Kopuru honi gehitu behar zaizkio beste material batzuk, beraien izaera bereziarengatik ez direnak bibliotekako sistema informatikoan gordetzen: kartelak, jai-programak, esku-orriak, postalak, egutegiak edota artxibo pertsonalak. Artxibo hauek Jose Letona, Jose Maria Uranga eta Juan Leibar filantropo arrasatearrek bibliotekari dohaintzan utzitako dokumentu pertsonalak dira, eta iturri historiko bezala balio handia dute.

2025. urtean 82 dokumentu gehitu dira Tokiko Bildumako funtsera. Hauetatik berriak, hau da, 2025an argitaratuak, 22 izenburu izan dira: 15 liburu eta 7 disko.





Dokumentu berrien uzta ugaria izan da aurten, eta honi gehitu zaio herritarrek egindako emarien kopuru altua. Izan ere, Tokiko Bilduma osatzeko garrantzitsua da herritaren ekarpen altruista, Arrasateren gaineko dokumentu interesgarriak lortzen baitira bide horretatik.

Tokiko Bildumari bultzada eman nahian, eta herritarrek berau ezagutu eta erabili dezaten, aspaldiko amets bati heldu diogu aurten: Tokiko Bildumako funts digitalak bilduko dituen datu basea sortzeari, hain zuzen. Udaleko Informatika Sailaren laguntzarekin, DSpace software libreko datu basea garatu dugu eta Euskal Herriko, Estatuako zein Europako katalogoekin bateragarria izango da. Formatu anitzetako edukiak eskuragarri egongo dira online. Momentu honetan datu basea elikatzen ari gara.

Bestalde, Tokiko Bildumaren zabalkundea egiteko hainbat jarduera egin ditugu. Horrela, herritar eta eragileekin zuzeneko lankidetzaren sarea ehundu dugu, tokiko ondarea partehartze kolektiboaren ardura bihurtuz.

50. hamarkadako argazkiak identifikatzen

Jose Maria Lasagabaster 'Bentxes' arrasatearraren argazkietako lekuak eta pertsonak identifikatzeko, M^a Angeles Okina eta Belen Aranburuzabala herritarren laguntza izan dugu eta primerako lana egin dute.



M^a Angeles eta Belen argazkiak identifikatzen

Julen Ribas solasaldietan

Komiki Klubaren baitan, Julen Ribas ilustratzaile arrasatearra eta Iban Zaldua idazlea gonbidatu ditugu saio ireki batera. Beraien azken lanak aurkeztu dizkigute eta Ribas-ek bere marrazketa prozesua azaldu digu, interes handia piztu duelarik.



Saioa iragartzeko kartela

Gabonetako pinua

Gabonetan biblioteka apaintzen dugula aprobetxatuz, aurtengo pinua herriko argazkiekin egin dugu. Jose Maria Lasagabaster argazkilari arrasatearraren funtsetik 50. hamarkadako hainbat argazki aukeratu ditugu, herritarrak jai giroan erakusten dutenak, eta horiekin osatu dugu pinua. Arrakasta handia izan du erabiltzaileen artean.



Pinua bibliotekako harreran

Gabonetako Lehiaketa

Bostgarren urtez jarraian, Gabonetako Lehiaketa antolatu dugu. Arrasateren gaineko interesa piztea da helburua, eta horretarako herriarekin lotutako zazpi galdera luzatu ditugu. Erantzunak bibliotekan bertan edo web orriaren bitartez emateko aukera egon da. Adin tarte guztietako 420 pertsonak hartu dute parte, inoizko kopururik altuena izan delarik. Erantzun zuzenak eman dituztenen artean 60 euroko 6 bonu banatu dira, Elkar liburu dendan erabiltzeko.



Gabonetako lehiaketako kartela




Irabazleak saria jasotzen, Andoni Arratibel zinegotziaren eskutik

INTERNET ETA ORDENAGAILUEN ZERBITZUA


Bibliotekan modu autonomoan erabiltzeko 16 ordenagailu eta wifia daude. Interneten nabigatu daiteke edota ofimatika programak erabili. Eskaneatu eta inprimatu ere egin daiteke. Santa Marinaran 2 ordenagailu eta inpresora daude erabilgarri. Wifi zerbitzua ere eskaintzen dugu.

Herritar guztiei teknologiarako sarbidea bermatzeko, 2023. urtean martxan jarri genuen ordenagailu eramangarriak etxera maileguan eramateko zerbitzua sendotu dugu. 8 ordenagailu ditugu erabilgarri eta, 2025ean 73 aldiz mailegatu dira.


**Ordenagailuetako saioak
Kulturaten**




**Ordenagailuetako saioak
Santa Marinaran**




**Saioak erabiltzaile motaren
arabera**




Erabiltzaileen bilakaera



Inprimaketak




Wifi saioak



WEB ORRIA ETA SARE SOZIALAK

Bibliotekako web orrian albisteak, agenda, nobedadeak, online tramiteak eta zerbitzuen inguruko informazioa eskaintzen dugu: www.arrasate.eus/biblioteka

2023an udaleko web orri osoa eraldatu genuen, diseinu berriago eta zerbitzu hobeago bat eskainiz. Bibliotekan ere, arlo guztiak berritu genituen itxuran eta edukian. Honen eraginez gorakada izugarria izan du web orriaren erabilerak, **2022tik %117a igo delarik**.



Bibliotekako web orria: <http://www.arrasate.eus>

Web orriaren lekualdatzearen ondorioz, 2023an ezin izan genituen erabilera datuak bildu.

* 2020an eman zen gorakada handiaren arrazoia da, biblioteka itxita egon zela hilabeteetan pandemiaren ondorioz, eta erabiltzaileengana iristeko modu nagusia bilakatu zela web orria.



Sare sozialei dagokienez, Instagram erabiltzea hobetsi genuen eta Facebook eta X sareak ez ditugu elikatzen jada. 2025ean Instagramen 1.036 jarraitzaile izan ditugu.

IRAKURKETA SUSTATZEKO JARDUERAK

HAURRAK ETA GAZTEAK

Ipuin kontaketak haurrentzat

Urtean zehar ipuin kontaketa saioak antolatu ditugu Kulturaten eta Santa Marinako auzo bibliotekan, adin tarte desberdinetako haurrentzat. Beste batzuekin batera, Odei Arregi, Ana Apika eta Pello Añorga izan ditugu gure artean.

Oso saio arrakastatsuak izan dira, bai parte hartze bai kalitate aldetik.

Jarduera	Saio kopurua	Parte hartzaile kopurua
Ipuin kontaketak haurrentzat	6	218



Odei Arregi ipuinak kontatzen Kulturaten




“Kontu Konta Kantaldia” saio musikatua Santa Marinan

Eraikuntza tailerrak

Lekeitioko Arragua elkarteak sortu eta dinamizatutako ‘Espazio espezieak’ izeneko eraikuntza tailerra eskaini diegu 6 eta 10 urte bitarteko umeei. Esperimentazioan oinarritutako tailer hauetan lagun asko apuntatu direnez, bi saio egin ditugu. Ondoren, Liburuaren Eguneko programazioan ikusi daitekeen bezala, familientzako saio ireki bat eskaini dugu.

Jarduera	Saio kopurua	Parte hartzaile kopurua
Eraikuntza tailerrak	2	31



Haurrak eraikuntza tailerrean

Biblioteka Edonon

Arragua elkarteak 'Biblioteka Edonon' egitasmoa sortu du eta Arrasateko Udal Bibliotekan froga pilotua doan egiteko gonbidapena luzatu digu.

Laburbilduz, karro batean liburu, jolas eta jarduera proposamen batzuk biltzen dira. Planteamendua izan da ikastetxeetako taldeak banan-banan etortzea eta prozesu hau aurrera eramatea: karroko materialarekin denon artean gustuko biblioteka antolatu, sortutako espazio hori erabili eta, azkenik, dena jaso.

Espazioa txoko desberdinek osatu dute:

- Irakurketarako 2 tipi.
- Eraikuntza inprobisatuko txokoa (mota desberdinetako piezak eraikuntza txikiak egiteko).
- Norberak bere maketa egiteko tailerra.

Bibliografiari dagokionez, bibliotekak eraikuntza, artea eta etxe motei buruzko liburuak eskaini ditu bertan, euskaraz zein gaztelaniaz.

Egitasmoa Herri Eskolako LH4ko ikasleei zuzendu zaie azaroan, eta maila horretako 5 taldek parte hartu dute. Era berean, Arizmendi Ikastolarekin 2026ko urtarrilerako lotu ditugu beste 5 saio.



Arrasate Herri Eskolako ikasleek Jokin Zaitegin muntatutako biblioteka



Ikasleak irakurtzen eta tipia egiten kontzentratuta

Proiektuaren jarduera osagarri gisa, 2 saio ireki antolatu ditugu, bata Santa Marinar eta bestea Kulturaten, irakurketa eta eraikuntza txokoak sortuz 3 eta 5 urteko umeentzat eta familientzat.



Biblioteka Edonon Santa Marinako bibliotekan



Biblioteka Edonon Kulturateko sarreran

Orohar, egitasmoa ausarta, originala eta arrakastatsua iruditu zaigu, haurren interesekoa eta sormena eta pentsamendua garatzeko aukera eman duena, irakurtzeko espazio berriak irudikatu eta esperimentatzeaz gain.

Komiki tailerrak

Ainara Azpiazu 'Axi' komikigile eta ilustratzailearekin komiki tailerrak antolatu ditugu urtean zehar Arrasate Insitutuko eta Arizmendi Ikastolako DBH 1eko ikasleentzat eta, bide batez, taldeekin bisita gidatuak egin ditugu haur eta gazte biblioteka eta bere zerbitzuak ezagutarazteko.

Jarduera	Saio kopurua	Parte hartzaile kopurua
Komiki tailerrak	10	241



Komiki tailerra Axpirekin

Bisita gidatuak eta lehiaketa

LH 4 mailako ikasleekin bisita gidatuak egin ditugu eta hauek dinamizatzeko, honako lehiaketa antolatu dugu: David Wiesner-en 'Flotante' albumarentzat izenburu bat proposatzea euskaraz. Sari bana eman zaio izenburu onena asmatu duen ikasleari eta bere ikasgelari (50 €ko bi opari txartel Elkarren gastatzeko).

Jarduera	Saio kopurua	Parte hartzaile kopurua
Bisita gidatuak eta lehiaketa	4	90



Lehiaketako talde irabazlea

Mintzoan kux-kux

2011z geroztik martxan daukagu Galtzagorri elkarteak abiatu zuen egitasmo hau. Helburu nagusia da haurren irakurketa ohitura indartzea eta, horretarako, familia, eskola eta biblioteka irakurketa guneak zirkuito batean lotzen dira. Izan ere, haurrak bibliotekara datoz egitasmoaren motxilarekin eta liburu bat aukeratzen dute 'Mintzoan kux-kux' txokoan. Etxean gurasoekin irakurri ostean, eskolan lantzen dute, eta han beste ikaskide batek hartzen du motxila liburuarekin, bibliotekara joango dena, zikloa berrituz etengabe. Horrekin batera, bazkide ez diren haurrei txartela egiten diegu momentuan, liburua maileguan hartu dezaten.

2025ean Arrasateko ikastetxe guztietako 3, 4 eta 5 urteko haurrek parte hartu dute proiektuan.

Egitasmo kuttuna eta arrakastatsua dugu hau, modu erraz batean ume denak bibliotekara (Kulturatera edota Santa Marinara) eta irakurketara hurbiltzea lortzen dugulako, haien familiekin batera.



Mintzoan kux-kux txokoa

HELDUAK

Literatura solasaldiak

Euskara, gaztelania eta ingelesezko solasaldiak martxan izan ditugu. Euskarazko solasaldiak Alex Gurrutxagak koordinatu ditu, gaztelaniazkoak Amparo Monterok eta ingelesezkoak John Costellok.

Horiez gain, azken urteetako komiki zikloen arrakasta ikusita, euskarazko Komiki kluba antolatu dugu estreinakoz, Igor Leturia koordinatzaile arrasatearrarekin otsailean abiatu dena. Udazkenean, berriz, Club de cómic gaztelaniazko zikloa egin dugu Kike Infame koordinatzaile berriarekin.

Solasaldi hauetan liburuaren idazlea, itzultzailea edo ilustratzailea bertaratu da zenbaitetan gonbidatu berezi bezala, adibidez, Joseba Larratxe, Maite Gurrutxaga, Karmelo Iribarren, Unai Elorriaga, Koro Navarro eta Aiora Jaka.

Jarduera	Saio kopurua	Parte hartzaile kopurua
Literatura solasaldiak	8	140
Tertulias literarias	8	286
Reading Club	6	72
Komiki kluba	4	52
Club de cómic	4	62



Euskarazko literatura solasaldia Alex Gurrutxagarekin



Joseba Larratxe gonbidatua "Club de cómic" saioan

Idazketa tailerrak

Aurretik eskainitako idazketa tailerrei jarraipena emateko, hastapen mailaz haratago doazen sakontze tailer bi eskaini ditugu lehen sei hilekoan, bata euskaraz, Miren Amuriza bertsolari eta idazlearekin, eta bestea gaztelaniaz, Alejandro Fernández Aldasoro idazlearekin. Tailer bakoitzak lau saioko iraupena izan du.

Gaztelarazko tailerrean jende asko itxaron zerrendan geratu denez, udazkenean tailerraren eskaintza berritu dugu. Irakaslea Alejandro Fernández Aldasoro izan da oraingoan ere.

Jarduera	Saio kopurua	Parte hartzaile kopurua
Idazketa tailerra	4	27
Taller de escritura I	4	46
Taller de escritura II	4	32



Gazteleraazko idazketa tailerra

24 Emakume

Jakiunde Akademiak sortutako erakusketa honek zientziarekin, artearekin eta letrekin lotutako emakumeak ditu ardatz. Proposamena osatzen duten 8 panelak martxoan izan ditugu gurean, Seber Altube plazan ikusgai. Osagarri gisa, Nora Alonso Casajús EHuko biologoak hitzaldi bat eman du, '¿Qué te apetece comer hoy?' izenburupean, nekazaritzako elikagaien sektoreaz jardun duena.

Jarduera	Parte hartzaile kopurua
Erakusketa	Ezin da zehaztu
Hitzaldia	80



Nora Alonso Casajúsen hitzaldia



Erakusketa Seber Altube plazan

Ingelesezko mintzapraktika

Aurten ere Jay Mannek bere burua eskaini du English Conversation Club jarduera koordinatzeko. Lan boluntarioa izanik, opari txartel bat eskaini diogu.

Jarduera	Saio kopurua	Parte hartzaile kopurua
Ingelesezko mintzapraktika	8	80



Ingelesezko mintzapraktika taldea

Sendabelar tailerra

Martxoan Garbiñe Larrea izan dugu gibel garbiketaren gaineko saio teoriko-praktikoarekin.

Jarduera	Saio kopurua	Parte hartzaile kopurua
Sendabelar tailerra	1	25



Sendabelar tailerra

Kontaketa helduentzat

Udazkenean helduentzako kontaketa saio bat eskaini dugu euskara. Ekimen honekin helduentzako euskal narratzaileen zirkuitu baten sorreran lagundu nahi dugu.

Jarduera	Saio kopurua	Parte hartzaile kopurua
Kontaketa helduentzat	1	16



May Gorostiaga helduei kontatzen

OROKORRAK

Liburuaren Eguna

Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna da eta ospatzeko hainbat jarduera antolatu ditugu. Helduei dagokienez, Ana Galarraga eta Pettiren ‘Frankenstein agurgarria: Victor Frankenstein gutun musikatua’ errezitaldi musikatua eskaini dugu, oinarrian duena izen bereko disko-liburu argitaratua.

Bestalde, haurrentzat saio bereziak egon dira bai Kulturaten, bai Santa Marinan. Lehenengoaren kasuan, Naita Produkzioak konpainiaren ‘Itsas (h)ondokoak’ antzerki musikatua antolatu dugu. Santa Marinan, berriz, Maite Franko ipuin kontalaria izan dugu ume txikiei ipuinak kontatzen.

Bestalde, “Espazio espezieak” eraikuntza tailerren osagarri gisa, saio ireki bat eskaini dugu Kultureteko Klaustroan 2-5 urteko ume eta familientzat, jolasa eta esperimentazioa erdigunean jarrita.

Programazioa iragartzeko, Ibon Sáenz de Olazagoitiak kartela eta flyerra diseinatu dizkigu eta K3n inprimatu dira.



Jarduera	Saio kopurua	Parte hartzaile kopurua
Frankenstein agurgarria: Victor Frankensteini gutun musikatua	1	60
Itsas (h)ondokoak	1	80
Aberekeriak	1	34
Espazio espezieak saio irekia	1	100



Ana Galarraga eta Petti "Frankenstein agurgarria" ikuskizunean



Naita Produksioak konpainia Areto Nagusian





“Espazio espezieak” familientzako saio irekia Klaustroan

Bibliotekaren Eguna

Urriaren 24a Bibliotekaren Nazioarteko Eguna da eta ospatzeko hainbat jarduera eskaini ditugu.

Helduentzat El Patio Teatro Logroño-ko antzerki taldearen ‘Conservando memoria’ antzezlan eskaini dugu.

Publiko guztientzat ‘Adabaki’ ikuskizuna antolatu dugu Bapatean Zirko konpainiarekin. Eguraldia lagun, Kultureteko kanpoaldean egiteko aukera izan dugu.

Santa Marinan, berriz, Elhuyarrek STEAM tailer bat eskaini dugu, zehazki ingeniariartzari buruzkoa eta 7 eta 10 urte bitarteko gaztetxoei zuzendua.

Programazioa iragartzeko, Ibon Sáenz de Olazagoitiak kartela eta flyerra diseinatu dizkigu eta K3n inprimatu dira.



Jarduera	Saio kopurua	Parte hartzaile kopurua
Conservando memoria	1	70
Adabaki	1	170
STEAM tailerra	1	15



"Conservando memoria" antzezpen gogoangarria



Bapatean Zirko bikotearekin Kulturateko plazatxoa jendez gainezka



Ingeniaritza tailerra Santa Marinan

Ahoz Aho

Intujai Teatro taldeak urtero antolatzen du 'Ahoz aho' ahozketasunaren jaialdia. Aurtengoa 18. edizioa da eta bertan parte hartzea proposatu digute oraingoan ere. Horri esker, nazioarteko kontalariak izan ditugu martxoan, haur zein helduentzat.

CELESTE ABBA (ARGENTINA)
TARANA KARIM (AZERBAIAN)
NEREA ARIZNABARRETA (EUSKAL HERRIA)
NICOLAS LUBO (KOLONBIA)
AMAIA ELIZAGOIEN (EUSKAL HERRIA)
<i>AHOZKOTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN MEZUA</i>
PELLO AÑORGA (EUSKAL HERRIA)
+
INTUJAI TEATRO (EUSKAL HERRIA)
<i>"KAMISHI-JAI"</i>
ANE GEBARA
IÑAKI CARRETERO
MAIDER ALCELAY
MAY GOROSTIAGA

Jaialdi honen barruan eta ekitaldi berezi bezala, martxoaren 20an Ahozketasunaren Nazioarteko Eguna ospatu dugu. Pello Añorgak egunerako propio idatzitako testua irakurri du Maider Alcelay arrasatearrak eta, ondoren, Kamishi-jai jarduera martxan jarri dugu,

zeinetan hainbat ipuin kontalari herriko txoko desberdinetan ipuinak kontatzen aritu baitira aldi berean, japoniar tradizioko Kamishibai teknikarekin.

Jarduera	Saio kopurua	Parte hartzaile kopurua
Ipuin kontaketak	3	95
Ahozkotasunaren Nazioarteko Eguna	1	60



Celeste Abba argentinarra helduentzako kontaketan





Kamishi-jai: aldibereko kontaketak erdiguneko plazetan

Biblioporrak eta Neguko Gida

Udan 'Biblioporrak' argitaratu dugu. Liburu eta pelikulen gomendio gida hau inguruko liburutegiekin elkarlanean egiten dugu. Era berean, urte bukaera aldera 'Neguko Gida' plazaratu dugu. Diseinua, maketazioa eta inprimaketa Helena Azkarragaurizar marrazkilari arrasatearraren esku egon dira.

Zabalkundeari dagokionez, paperean zein formatu digitalean zabaldu dira, eta ikastetxeetan lehen hezkuntzako irakasleei banatu zaizkie. Liburutegi eta bitartekari askorentzat lagungarriak izaten dira gida hauek.

Argitalpena	Ale kopurua
Biblioporrak	600
Neguko Gida	600



2025/2026 ikasturteko eskaintza iragartzeko kuadriptikoa

Triptiko bat kaleratu dugu ikasturteko solasaldien eta tailerren berri emateko, baita horren egokitzapena den kartel bat ere. Diseinua eta maketazioa Concetta Probanza ilustratzaile eta diseinatzaile urretxuarrak egin digu.

Argitalpena	Ale kopurua
Kuadriptikoa	400
Kartela	30



Irakurpuntuak

Uda garaian irakurleek liburuak ondo zaintzeko kanpaina bat martxan jarri dugu, guk geuk diseinatutako irakurpuntu batzuen bidez.

Bestalde, irakurpuntu bat prestatu dugu 2026eko egutegiarekin. Urtero ilustratzaile desberdin batek egiten digu irudia eta oraingoa Iratxe López de Munain iruindarrak marraztu du. Ikuxka arduratu da maketatu eta inprimatzeaz.

Argitalpena	Ale kopurua
Udako irakurpuntuak	500
2026ko egutegidun irakurpuntuak	3.050

Hondamendia 1. zk.

Egilea
Bibliotekako erabiltzaile bat
Teknika
Harea liburu gainean

Desastre n. 1

Autoria
Cierta lectora de la biblioteca
Técnica
Arena sobre libro

Hondamendia 4. zk.

Egilea
Bibliotekako erabiltzaile bat
Teknika
Hozkadak liburuari

Desastre n. 4

Autoria
Cierta lectora de la biblioteca
Técnica
Mordidas al libro



2026 biblioteca

URTARRILA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	OTSAILA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28
MARTXOA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	APIRILA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
MAIATZA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	EKAINA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
UZTAILA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	ABUZTUA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
IRAILA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	URRIA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
AZAROA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	ABENDUA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31

Astelehenetik ostiralera / Lunes a viernes 9:00-20:00
Larunbatetik / Sábado 10:00-13:00
Ordutegi berezia / Horario especial 10:00-13:00/16:00-20:00
Udako ordutegia / Horario de verano 9:00-13:00/16:00-20:00
Abuztua / Agosto 9:00-14:00
Ordutegi murriztua / Horario reducido

MAILEGUA
Mota bakoitzeko 3 dokumentu. Liburuak 21 egun, besteak 7 egun.
Berritu daitzake, enpresari ez badute.

PRÉSTAMO
3 documentos de cada tipo. Libros 21 días, otros documentos 7 días.
Se pueden renovar, salvo que estén reservados.

Arrasate
ATE BERRIKAZARITZU

Auzo kalea 1, 20500 Arrasate / Teléfono: 943 25 20 25 / WhatsApp: 688 68 91 13 / biblioteca@arrasate.eus / www.arrasate.eus/biblioteca
LUD 2023-2025

2026 Santa Marinako auzo biblioteka

URTARRILA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	OTSAILA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28
MARTXOA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	APIRILA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
MAIATZA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	EKAINA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
UZTAILA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	ABUZTUA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
IRAILA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	URRIA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
AZAROA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	ABENDUA 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31

Astelehenetik ostiralera / Lunes a viernes 16:30-20:00
Itxila / Cerrado

MAILEGUA
Mota bakoitzeko 3 dokumentu. Liburuak 21 egun, besteak 7 egun.
Berritu daitzake, enpresari ez badute.

PRÉSTAMO
3 documentos de cada tipo. Libros 21 días, otros documentos 7 días.
Se pueden renovar, salvo que estén reservados.

Arrasate
ATE BERRIKAZARITZU

Auzo kalea 1A, 20500 Arrasate / Teléfono: 943 71 19 25 / WhatsApp: 688 68 91 13 / auzobiblioteca@arrasate.eus / www.arrasate.eus/biblioteca
LUD 2023-2025

Interes guneak

Gai bat aukeratu eta haren inguruko materialak elkartzen dira hainbat euskarritan epe jakin baterako. Helburua da erabiltzailearen arreta eta interesa erakartzea, irakurzaletasuna sustatzea eta bibliotekako bilduma modu dinamikoan ikusaraztea.

Interes guneen aukeraketa egiteko irizpideen artean, kontuan izaten ditugu gaurkotasuna duten gaiak, urteurrenak, nazioarteko egun seinalatuak, idazleen heriotzak, eta abar. Lekuari dagokionez, bibliotekako gune desberdinak erabiltzen ditugu gai eta funts hauei ikusgarritasuna emateko. Interes gunean jasotako dokumentuekin gida bat argitaratzen dugu bai paperean eta baita web orrian ere. Zenbaitetan, hitzaldi bat antolatzen dugu gaiarekin lotuta.

Aurten 13 gai aukeratu ditugu.

Interes guneak
• Hiriak literaturan • Elikadura eta nutrizioa • Nazioarteko LGTB eguna • Emakume zientzialariak • Euskal komikia • Joxe Azurmendi (1941-2025) • Martxoak 8 • Osasun mentalaren eguna • Sebastian Salgado (1944-2025) • Xuan Bello (1965-2025) • David Lynch (1946-2025) • Basatzea • Zentsura AEBetan



Bibliotekako toki desberdinetan jarritako interes guneak

Irakurketa Errazeko irakurle taldeak

Azken urteotan Goyeneche Fundazioko irakurle taldea dugu bibliotekan. Liburuak lortzen dizkiegu eta astearte goizetan biltzen dira haur bibliotekan irakurtzera. Honez gain, Arizmendi, Iturbide Egoitza, San Juan de Dios eta Aita Menni ospitaletako zenbait talderi ere lortzen dizkiegu liburuak, baina talde hauek beraien egoitzetan biltzen dira.



Garaguneko irakurle taldea

Bisita gidatuak

Bibliotekan bisita gidatu hauek prestatu eta aurrera eraman ditugu:

Non	Erakundea	Maila	Saio kopurua	Parte hartzaile kopurua
Kulturate	Arrasate Herri Eskola	LH4	9	176
	Arrasateko Institutua	DBH1	5	117
	Arizmendi Ikastola	DBH1	5	124
	EPA	Helduak	4	105
	Goyeneche Fundazioa	Helduak	1	8
Santa Marina	Arrasate Herri Eskola - Musakola	HH3, HH4, HH5	24	360
	Arizmendi ikastola - Santa Teresa	HH4, HH5	4	80
Guztira			52	970



Bisita gidatuak Kultureteko haur eta gazte bibliotekan



Bisita gidatuak Santa Marina auzo bibliotekan



Helduen bisita gidatua

JARDUERAK ZENBAKITAN

Hau dira urtean zehar egin ditugun jarduera guztien emaitza orokorra, zenbakitan adierazita. Azpimarratzekoa da iaztik igo egin dela bai saio eta bai partaide kopurua.

Jarduera	Saio kopurua	Partaide kopurua
Solasaldiak, ipuin kontaketak, ikuskizunak, tailerrak, hitzaldiak, bisita gidatuak, lehiaketak	145	3.511

ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA

Tokiko elkarte eta erakundeekin lankidetza da guretzat komunitatea egiteko beharrezkoa den 'itsasgarria'. Etorkinen elkarteek, osasun mentaleko elkarteek, adinekoen elkarteek eta abarrek konfiantzazko lotura lortu dute liburutegiarekin, egunez egun eskaintzen dizkiegun jardueren eta arretaren bidez. Lankidetzan aritzeak 'gutxiagorekin gehiago egitea' ahalbidetzen du. Aurten, betiko egitasmoetan sakontzeaz gain, herriko zenbait eragilerekin elkarlanean aliantzak eraiki ditugu:

Mundutik Arrasatera

2015. urtean jaio zen egitasmoarekin aurrera jarraitu dugu aurten ere. Hiru eragilek parte hartzen dugu bertan: proiektuaren bultzatzaile den Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Ekin Emakume Taldeak eta Udal Bibliotekak. Helburua da herritarron elkar ezagutza eta aniztasunaren errespetua sustatzea.

Aurten bi jarduera antolatu ditugu. Bata maiatzean izan da, Txaetako plazan; Nerea Atxa eta Souad Salah Ghala arrasatearrek 'Meloia eta angurria' ipuina kontatu dute euskaraz eta hassanieraz. Saio jendetsu eta ikusgarria izan da.

Abenduan, berriz, Maite Franko ipuin kontalaria izan dugu 'Nire etxea zure etxea da' ipuin kontaketaekin, aniztasuna eta migrazioa bezalako gaiak landuz.



Txaetako Ipuin kontaketa euskaraz eta hassanieraz



Maite Frankoren kontaketa Kulturaren

Goyeneche Fundazioa

Azken urteetako ohiturari jarraiki, Goyeneche Fundazioko lagunek irakur puntuak egiten dituzte Garagunean, eta ondoren bibliotekako harreran uzten dituzte erabiltzaileek opari modura eraman ditzaten. 2024an aukeratu dituzten egun esanguratsuak, besteak beste, hauek izan dira: Poesiaren Eguna, Martxoak 8, Aniztasun Kulturalaren Nazioarteko Eguna, Bibliotekaren Nazioarteko Eguna, LGTBQ+ Eguna, Movember eta Minbiziaren Nazioarteko Eguna.



Irakur puntuak sarrerako mostradorean

Txatxilipurdi Elkarte

Aurten ere herriko elkarte honekin 'Freskura' egitasmoan parte hartu dugu. Zehazki, udaran igerilekuan haur eta gaztetxoei maileguan uzteko irakurgaiak aukeratu eta helarazi dizkiegu: aldizkariak, komikiak eta ipuinak euskaraz. Elkarlan honek baliatzen digu bibliotekaren eraikinetik aparte gure liburuak erakustea baina azken bi urteetan berritasunak gehitzen joan bagara ere (iaz gaztetxoekin irakurle talde bat osatu nahi izan genuen eta aurten helduentzat Eneko Barberena herriko idazlea gonbidatu dugu) ez dute ondo funtzionatu.



Freskura egitasmoaren kartelak irakurketa klubaren gonbidapenarekin

Arrasateko Nagusien Kontseilua

Arrasateko Pertsona Nagusien Astearen programaren baitan, bibliotekak bi hitzaldi antolatu ditu. Aurreko edizioetan elikadura, gaixotasunak eta zahartzaroa landu ditugu eta aurtengo gaia artistikoagoa eta ludikoagoa izatea nahi izan dugu. Horrela, bada, Clara Probanza ahizpen eskutik 'Horadando la corteza, cuerpos en diálogos' izeneko hitzaldi-solasaldiaz disfrutatu izan dute herritarrek. Egitarauaren barruan, Iñaki Peñak sendagileak 'Heriotzak eta doluak' bere liburuaren aurkezpena egin du ere, egileak berak espreski eskatu digulako Arrasaten egin nahi duela eta gonbidatu bereziekin liburuaren berri eman nahi duela. Bi hitzaldietan 130 pertsona bertaratu dira eta parte hartze handia egon da. Bosgarren urtez jarraieran sendotzen ari da Anakon taldearekin daramagun elkarlana.



Pilar Ansoategi omenaldia

Pilar Ansoategi Iribekapos arrasatearra alor askotan nabarmendu den pertsona dugu, besteak beste Gora-Behera liburu-dendako langilea izan zen. Udal Bibliotekak urte askotan erosi izan du bertan liburuak eta entzun bere gomendioak. Omenaldi bat egiteko asmoan bere lagunak Kultura Sailera hurbildu ziren, Pilarrek margotu egiten zuen eta margo horiek bildu eta Kulturategiaren erakusketa bat antolatu nahi zuten. Liburutegiaren ekarpena katalogo bat egiterako orduan aholkularitza eta lankidetzak eskaintzea izan zen. 'Pilar, zutabe' katalogo bat baino liburu da, haren biografia, argazkiak eta akuarelak jasotzen dituena. Horregatik guztiagatik pozik gaude, herritarren gogoan luzaroan iraun dezakeen jardura hau arrera ateratzeagatik. Erakusketa otsailaren 6tik 27ra egon zen irekita eta jende asko bildu zen bertan.



Santa Teresa guneko Arizmendi Ikastola

Maiatzean San Isidro jaiak ospatzen direla eta, Arizmendi Ikastolako Santa Teresa gunetik ezohiko gonbidapena jaso dugu, hots, liburu eta argazki zaharren bitartez ikasleei eman nahi diote auzoko bilakaeraren berri eman. Asun Agirianok, Musakolako baserri batean jaio denez, gustura onartu du erronka eta eramandako dokumentuekin sekulako jakinmina piztu da ikasleen artean. Harrezkero, bertako ikasleak Santa Marinako auzo liburutegira hurbiltzen dira hamabostean behin liburu eta nobedade gehiago ezagutzera.



Liburutegia Denontzat elkarte

Debako udal liburutegia hobetzeko asmoz sortutako taldearekin batera lankidetzan arituz gara. Irakurzaletasuna txikitatik bultzatu nahi du elkarte honek, herriko txikienek ere liburutegia gazteek, helduek eta adinekoek bezala erabiltzeko aukera izatea eta horregatik eskatzen dutena da arautegia aldatzea. Hasieratik izan dute gure liburutegiaren babes, testigantza eta esperientziaren trukaketa. Ekimen desberdinen artean mahai-inguru bat antolatu zuten, jendetsua, herriko alkatea ere bertan egon zelarik. Harrezkero, udaz geroztik, helburua lortu da: Debako liburutegiak ateak eta ordutegiak denoi zabaltzea eta arautegi berriaren arabera funtzionatuko du. Haur, gazte, heldu zein nagusi, denok edukiko dituzte eskubide eta betebeharrak berdinak.



Arrasateko beste eragile batzuk

- EHUko Hezkuntza fakultateko Ione Blanco ikasle arrasatearrak Gradu Amaierako Lana Arrasateko bibliotekaren inguruan egin zuen, gaiak, besteak beste, haurtzaroan irakurzaletasuna sustatzeko gure bibliotekak duen inplikazioa aztertzea. Horretarako Arizmendi Ikastola zein Herri Eskolako datuak eta baita gure bi haur liburutegikoak ere baliatu zituen. Lana udan aurkeztu zuen eta 10 puntu eman zizkioten.



Ione Blancoren Gradu Amaierako Lana

- Bizipoz pertsona nagusientzako programak diseinatu eta garatzen dituen elkarte kooperatiboarekin lanean ari gara udaz geroztik. Asmoa dugu hezkuntza-esparrua eta pertsona nagusiak elkartzea, belaunaldien arteko elkartasunaren alde proiektu bat martxan jartzeko. Programa diseinatuta dago eta udaberrian hasiko da. Udal Hezkuntza eta Gazteria sailekin batera koordinatu gara egitasmo hau burutzeko.
- Arrasateko LGTBI+ pertsonen bizitzak hobetzeko plana.

Arrasateko Udal Bibliotekak hasieratik babesten du LGTBI+ pertsonen eskubideak eta bizi baldintza duinak aldarrikatzen duen plan hau. Urte asko dira gure irakurleen datu baseetan ez binario aukera jartzeko eskaera luzatu denia Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuari eta, egun, agiri ofizialetan agertzen da aukera hori. Urte asko dira baita generoa aldatu denia bazkide batzuei euren hala eskatuta ere.

Liburutegiak inklusioa errazten duen zerbitzua delako, adiskidetasuna eta

errespetuzko tratua bermatzen diren tokia garelako, gure lantaldea sentsibilizatuta dagoelako eta prestakuntza espezifikoa duelako LGTBI+ kolektiboari arreta emateko orduan, herriko beste eragile batzuen artean, diagnostikoaren aurkezpenaren prozesuan partehartzea erabaki genuen.



LANTALDEA

Urteko helburu eta erronkak lortzeko orduan, eta aurrekontu-mugak gorabehera, liburutegiek ezinbesteko baliabidea dute: pertsonak. Arrasateko bibliotekan zerbitzua eskaintzen da 8 langile finkorekin, lanaldi osoan. Horietako 5 langile A2 mailako bibliotekariak gara eta 3 langile C1 mailako liburuzain laguntzaileak. Hauetako liburuzain laguntzaile bat Santa Marina auzo bibliotekako langilea da.

Udan, auzo biblioteka itxi egiten da eta bertako langilea Kulturatera dator. Langileen oporraldian Kulturateko zerbitzua zabalik mantentzeko, liburuzain laguntzaile bat kontratatzen da bi hilabeterako.

Udalak urtero sinatzen du Gureak taldearekin 'Pauso Berriak' programan parte hartzeko elkarlan hitzarmena. Horri esker, David Raso lankidea etortzen da lanera egunero ordu eta erdiz.



Prestakuntza

Lan-bizitza aberasgarri baten osagai nagusietako bat jakin-min aktiboari eustea da. Etengabeko prestakuntza eta jakintzak eguneratzea ez dira aukera bat, biziraupen profesional eta sozialaren beharra baizik. Gaur egun, soziologoek "gizarte likidoa" deitzen dioten horretan bizi gara, hori dela eta duela bost urte ikasi genuena ez da nahikoa gaur egun. Are gehiago, informazioa eta dokumentazioarekin lan egiten dugunean; are gehiago gurean, Euskadiko Komunitate Autonomoan ez baitugu informazio eta dokumentazio ikasketa arautuen eskaintzarik. Horregatik, elkarte profesionalen sareetara jotzen dugu heziketa gaurkotua jasotzeko orduan.

Zentzu horretan, Arrasateko bibliotekan ez dugu urteetan zehar ikasteko kuriositatea galdu, jarraitzen dugu prestakuntzaren aldeko apustua egiten.

Ikastaroa	Orduak	Langile kopurua	Antolatzailea
Haur eta Gazte Literatura: Bitartekaritzaren praktikak eta estrategiak	65	1	Galtzagorri / EHU
Gestión de la Colección Local en Bibliotecas y otros Centros de Información	20	2	ALDEE
Propiedad intelectual en Archivos, Bibliotecas y Centros de documentación: sentido común y buenas prácticas	15	1	ALDEE
Euskal Liburutegi Nazionala: iragana, oraina eta geroa	5	1	ALDEE / UEU
XIX Jornadas Españolas de Información y Documentación (JEID25)	13	1	ALDEE / FESABID
Interakzio soziala, osasun iturri	5	1	Donostia Kultura
4. hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko ikastaro trinkoa	110	1	Arrasateko Udala
Literatura esperientziak gazteekin	4	1	Galtzagorri
Udal Liburutegiak eta eskola liburutegiak: ezinbesteko elkarlana?	6	3	ALDEE

INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

Kulturarte

XXI. mendearen hasieran, begi bistakoa da teknologiak gizarte berri bat moldatzen ari direla. Sortzen ari den gizarte berri honetan herritarrak informazio eta komunikazio teknologiekin harreman estua eduki eta erraztasunez erabili beharko ditu, eskubide osoko kide izateko. Zentzu horretan, bibliotekako iazko ekipamendu berri gehienak teknologia eta aukera berdintasunekin du zerikusia. Ekipamendu berri hau erosi da:

- Ordenagailu eramangarri bat erabiltzaileentzat, asko mailegatzen baitira.
- Poltsikozko bi lupa elektroniko Advanced. Testuen irudiak hartu eta automatikoki audio fitxategi bihurtzeko gaitasuna duten gailu hauek euskaraz eta gaztelaniaz irakurtzeaz gain, beste 30 hizkuntza baino gehiagotan irakurtzeko aukera ematen dute.
- Graduazio handiko lupa tradizionalak, lepoan zintzilikatzeko sistemari esker, adinekoei eta ikusmen arazoak dituztenei irakurtzeko esperientzia eroso eta independentea eskaintzen diete.

Ekipamendua	
Azalera erabilgarria (m2)	1.400
Bildumarentzako apalak (m2) (sarbide librea/gordailua)	1.276/550
Irakurpuntuak	177
Ordenagailuak (publikoak/barnekoak)	18/10
OPAC(katalogoa kontsultzeko ordenagailua)	6
Inpresorak (publikoak/barnekoak)	4/4
Eskanerrak (publikoak/barnekoak)	2/2
Ordenagailu portatilak (publikoak/barnekoak)	7/0
Fotokopiagailuak (publikoak/barnekoak)	2/1
eReaderrak (publikoak)	16
Tablet (publikoak/barnekoak)	2/1
DVD irakurgailua (bertan ikusteko/mailegurako)	4/1
Wifi zerbitzua	Bai
Wifi bidez inprimatzeko aukera	Bai
Astean irekitako orduak	55,5

2024ko udazkenaz geroztik Ikasteko Gelaren zerbitzu berria dugu Kultur etxean. Ordutegia goizeko 9:00etatik 01:30era da, horrela ikasleek liburutegiaren ordutegitik haratago aukera handia dute. Gela modu autonomoan gestionatzen da, 48 eserleku daude eta gaur arte 501 txartel emititu dira.

Santa Marinako auzo biblioteka

Toki Argi izena duen eraikinean kokatzen da Santa Marina auzoko biblioteka orain dela **35 urte**. Kontuan izanda, estandarrak 350 m2 ezartzen dituela zerbitzu on bat emateko eta gure bibliotekak 46 m2 baino ez dituela, 2024. urtean zehar udal gobernuarekin eta teknikariekin batera lan egin dugu arazo honi irtenbide praktikoak emateko. Iaztik ari gara proiektu teknikoa lantzen OZMA-ko udal teknikariekin batera eta litekeena da aurtengo ikasturtearen hasieran lanak hastea. Urteetan Santa Marina auzoari eta inguruko auzoei zerbitzu hobea emateko ametsa gertuago ikusten dugu.



Auzo bibliotekako sarrera



Auzo biblioteka barrutik

Ekipamendua	
Azalera erabilgarria (m2)	46
Bildumarentzako apalak (m2) (sarbide librea/gordailua)	51/4
Irakurpuntuak	27
Ordenagailuak (publikoak/barnekoak)	2/1
Ordenagailu eramangarria	1
OPAC (katalogoa kontsultatzeko ordenagailua)	0
Inpresorak (publikoak eta barnekoak)	1
Fotokopiagailuak (publikoak eta barnekoak)	1
eReaderrak	2
DVD irakurgailua	1
Wifi zerbitzua	Bai
Astean irekitako orduak	17,5

FINANTZAKETA

Liburutegi publikoen finantzaketaz hitz egitea iraunkortasun demokratikoaren eremuan sartzea da. Liburu-denda batean ez bezala, liburutegiaren arrakasta ez da haren onura ekonomikoen arabera neurtzen, baizik eta Inbertsioaren Itzulkin Sozialaren arabera (SROI, Social Return on Investment*). Zuzeneko onura ekonomikoaz gain, jarduera, proiektu edo inbertsio batek gizartean eta bere ingurunean sortzen duen balio erantsia, eragin positiboa edo onura da.

Arrasateko bibliotekan eskaintzen ditugun zerbitzuak doakoak dira, baina liburutegi publikoak Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuaren eta tokiko administrazioen erantzukizuna dira. Liburutegien aldeko politikak dira etorkizuneko inbertsiorik onena, gizarte kohesioari bultzada emango diona.

2025. urtean material bibliografikoa erosteko Kulturaten dagoen bibliotekaren aurrekontua 45.000 €-koa izan da, azken urteekin alderatuta gehikuntza egon arren, ez dugu oraindik betetzen bildumari dagokion estandarra.

Eskuraketa bibliografikorako Arrasateko liburutegiak **11.295 €** jaso ditu Eusko Jaurlaritzatik. Udalak **25.790 €** jarri ditu. Guztira **37.058 €** erabili dugu liburuak, ikus-entzunezkoak, egunkariak eta aldizkariak erosteko.


Santa Marina auzoko liburutegiak 2025. urtean liburuak eta beste material bibliografikoa erosteko 4.140 € izan ditu, erabili den kopurua **3.887,89 €** izan da.

*Diru-balio bat inpaktu ukiezinei esleitzea ahalbidetzen du (inklusioa, osasuna, autoestimua), eta ratio gisa adierazten da, adibidez: 3:1; horrek esan nahi du inbertitutako euro bakoitzeko hiru euroko gizarte-balioa sortzen dela.

Kulturaten Eskuraketa bibliografikorako finantzaketa



Santa Marinaran eskuraketa bibliografikorako finantzaketa



Teknologia berriak ezartzeko aurrekontuaren erosi den ekipamendua bi lupa digital eta ordenagailu eramangarri bat izan dira, guztira **2.068,90€**, horietatik Eusko Jaurlaritzak 1.862€ jarri ditu.

Liburutegia zentro aktiboa da eta zentzu honetan irakurketa ludikoa sustatzeko eta diziplina artistiko ezberdinen bitartez publikoa literaturara eta bibliotekara gerturatzeko jarduerak mordera antolatzen ditugu. 2025an, irakurketa sustatzeko jardueren finantzaketa modu honetan gauzatu da: Arrasateko Udalak **39.940€**, horietatik **4.081€** Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzari esker.

Hasierako 40.000 €-ko aurrekontutik ia guztia erabili da, **39.940€** hain zuzen.

Udalaren apustua nabarmena da dinamizazioaren esparruan. Aurrekontu sendo batek jarraitutasuna, iraunkortasuna eta profesionaltasuna ahalbidetzen ditu. Eta tresna estrategikoa da komunitatean benetako eragina lortzeko.

Irakurketa sustatzeko jardueren finantzaketa



LIBURUTEGI PUBLIKOEN ESTANDARREN BETETZE MAILA

20.000 biztanletik gorako udalerrietako liburutegi publikoek Eusko Jaurlaritzak onartutako 11/2007 Legeak ezartzen dituen zerbitzu batzuk bete behar dituzte.

Arrasaten estandarren garapena horrela jasotzen da:

Adierazlea	Arrasateko Udal Bibliotekan	20.001etik 30.000ra biztanleko herriak
Zerbitzuguneak	Liburutegi nagusia + haur eta gazte liburutegia	Liburutegi nagusia + hiri liburutegi 1
Azalera (m2)	Kulturete: 1.600 m2 Santa Marina: 46 m2	Liburutegi nagusia: 1.500 m2 Gutxieneko eremua: 350 m2
Sarbide libreko funtsak	57.114 dokumentu	44.900 dokumentu (2 biztanleko)
Eskuratze indizea	Bildumaren % 6	Bildumaren % 10
Sarbide informatikoa	Kulturete: 25 Santa Marina: 3	Liburutegi nagusia: 20 Hiri-liburutegiak: 10
Langileak	8 langile	11-14 langile
Astean irekitako orduak	55,5	60-70

ONDORIOAK ETA LAN LERROAK

Esaten dute bizirik dagoen hizkuntza mugitu egiten dela, aldatu, transformatu. Beharbada bibliotekari buruz gauza bertsua esan daiteke; 2025ean lan eta ekitaldi ugari izan dira, irakurle askok ezezagun izateari utzi diote aliatu bihurtzeko eta zentzu horretan erabiltzaileak saretzen jarraitu dugu.

Urteko balantzeak funtsezko zerbitzu publiko eraginkor gisa sendotzen du liburutegia. Hemen azaldutako hazkunde-adierazleek kulturen egindako inbertsioa baliozkotzen dute, eta gure eskaintzaren kalitatea hobetzen jarraitzera bultzatzen gaituzte. Jaso ditugun datuak kontuan izanda, ondorio hauek atera ditzakegu:

- Bildumari dagokionez, oraindik estandarrek ezarritako kopurura heltzen ez bagara ere, esan genezake gure bilduma eguneratua dagoela eta erakargarria dela.
- Urtero legez, irakurketa suspertzeko jardueren erritmoa eta jarduera-fluxua etengabea da. Saio hauek eragin handia dute, parte-hartzaileen balorazioek eta zenbakiak adierazten duten bezala. Herriko hedabideek, bai prentsa idatziak, bai sarean argitaratzen denak, bai telebistak tokia egiten digute. Iaz martxan jarri genituen jarduera batzuk, adibidez idazketa ikastaroak, harrera ona izan dute eta beste udal sail batzuk ere antolatzen hasi dira.
- Liburutegiko azpiegitura teknologikoa asko erabiltzen da. Kontuan izatekoa da aurren ere 15.000 mila saiotik gora burutu direla eta 33.197 orri inprimatu direla. Baita, ordenagailu eramangarriaren zerbitzua ere. Garbi geratzen da teknologia herritar guztien eskura jartzea helburu garrantzitsua dela, beti ere, tresneria eguneratu eta funtzionamendu egokiarekin.

Etorkizun hurbilean hauek lirateke gure bide-orri nagusiak:

- Santa Marinako bibliotekak espazio gehiago izateko ametsa errealitate bihurtu.
- ArrasaTeka Ondare Digitala biltzen duen datu basearen proiektua herritarrei zabaltu eta edukian sakondu.
- Plan estrategikoan pausuak ematen jarraitu.
- Tokiko elkarteekin daramagun elkarlanari eutsi.
- Arrasateko Udal Bibliotekak 2026an 60 urte beteko ditu eta ekitaldi berezi batzuk antolatu nahi ditugu sei hamarkada hauen ibilbidea ospatzeko.

Eskerrak ematen dizkiegu liburutegia organismo bizia, dinamikoa eta ongizatearen aldekoa izaten laguntzen dutenei. Aurrera egin dezagun indarrez eta ilusioz.

BIBLIOGRAFIA

- 11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa

<https://www.legegunea.euskadi.eus/webleg00-contfich/eu/contenidos/ley/bopv200706288>

- Euskadiko liburutegi publikoen 2012ko estandarrak

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicacion_publicacion_profesional_biblio/eu_def/adjuntos/estandarrak_LP_2012.pdf

- Gonzalo Oyarzún: *Liburutegi imajinatua. Komunitateak ereiteko lorategia*. Donostia: ALDEE, 2023

- Euskarazko argitalpenei buruzko XVIII. Txostena

https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/keb_argit_lib_euskara_2022/eu_def/adjuntos/Euskarazko-argitalpenak-2022.pdf

- IFLA-UNESCO Manifestua, Liburutegi Publikoei buruzkoa (2022)

<https://www.aldee.eus/eu/dokumentuak/>